



Urretxuko udala

URRETXUKO JAIK 2015 .- SANTA ANASTASIA

SANTA ANASTASIA JAIETAKO I. ARGAZKI LEHIAKETA DIGITALA

PARTAIDEAK: Nahi duten pertsona guztiek parte hartu ahal izango dute.

GAIA: 2015eko Santa Anastasial Jaiak (sei argazki bildumako). Jai egitarauko ekitaldi guztiak izan daitezke argazkietarako gaia.

AURKEZPENA: Irailaren 24ko arratsaldeko 2ak arte

* Ikusi oinarri guztiak egitarauaren amaieran.

ADINEKO PERTSONEN ASTEA

**Irailak 11
ostirala**

BELAUNALDIEN ARTEKO EKIMENA: GAZTE IZANA GAZTE BIDEAN

- **17:30.-** Gazte Bidean lokalean eta Iparragirre plazan, BELAUNALDIEN ARTEKO ELKARTRUKEA: gazte izanak eta gazteak izateko bidean daudenak elkar ezagutzuz.
- Play-station, bingoa, futbolina, mahai jokuak eta sulkaldaritza tailerra
- Afari-merienda

**Irailak
13
igandea**

ADINEKO PERTSONEN EGUNA

- **11:30.-** Udal Korporazioak **Eguneko Zentrora bisita** egingo du.
- **12:15.-** Adineko pertsonak eta Udal Korporazioa Aterpen elkartuko dira eta bertaratutako edadetuenak omenduko dira. Ondoren, "Lizarriturri" txistulari taldeak lagundurik, Martin Deunaren elizaraino joango dira.
- **12:30.- Meza**, Martin Deunaren Elizan. **GOIZALDE** abesbatzaren parte-hartzearekin.
- Ondoren, bertaratutako adineko pertsonen **ARGAZKIA** aterako zaie.
- Jarraian, "**Lurra**" **Dantza taldearen saioa** Iparragirre plazan.
- **14:15.- BAZKARIA** Ederrena pilotalekuan.
- **16:00.-** Bazkalondoa **DANTZA LEHIAKETA ETA ANIMAZIO EKINTZAK** izango dira **Dj Tirapu #andonikmugitzennau**-en eskutik.



Urretxuko udala

IRAILAK 11, ostirala

PANTERAS FEST EGUNA

Musika eta feminismoa lotzen dira jardunaldi honetan, emakumeen protagonismoa bilatuz, bai oholtza gainean baita publikoan ere. Herritar guztien parte hartzea bultzatu nahi da eta bereziki neska gazteena, jai eta sexismorik gabeko giroan.

17:00etatik 03:00etara, Gaztelekun, ekintza hauek izango dira:

- 17:00 Merkatu feminista: fanzineak, artisautza (erropa, bolsoak..).
- 18.00 Taller Kaleak, gauak eta jaiak geureak dira. Indarkeri sexistaren gaia landuko da.
- 19:00 Hitzaldia: zer da Panteras Fest?
 - Iruñako Farrukas, autodenfentsa feminista jaietan lantzen duen taldearen aurkezpena.
- 21:00-00:00. Conciertos:
 1. Ochi Di Farfalah..... Rock Acústico (Zarautz / euskeraz)
 2. Boca De Baba.....Rap (Barcelona / gaztelaniaz + katalanez)
 3. Perra vieja.....Hardcore Punk Feminista (Madrid / gaztelaniaz)
 4. Cha.Ne.Ca.....Regueton Queer feminista (Chile-París / gaztelaniaz - frantzesez)
- 00:00-03:00. DJ
 - Plácida Yeye.....DJ Disco

IRAILAK 11, ostirala

18:00.- GOIERRI K.E. SASKIBALOA. SASKIBALOI TALDEEN AURKEZPENA
Gernikako Arbola plazan.

IRAILAK 13, igandea

XXIV. MENDI BIZIKLETA PROBA

Irteera ordua: 09:00

Irteera eta helmuga: Areizaga-Kalebarren plaza
Derrigorrezkoa da kaskoa erabiltzea.



Urretxuko udala

IRAILAK 18, ostirala

BELDUR BARIK GUNEA

Urretxuko herriak jaietan eraso sexistak egon ez daitezzen hartzen duen konpromisoa adieraziko da kartel eta forma ezberdinetan. Honetaz gain, jai batzordeak erasoen aurreko protokolo bat jarriko du martxan eta talde feministaren laguntzaren bitartez, erasoak salatzeke 24 ordutako telefono bat egongo da martxan jai guztietan zehar.

Txosnatan, informazio aholkularitza gune bat egongo da, irailaren 18an, 19:00etatik 00:00etara. Bertara, informazioa eskatzera, galderak egitera edota erasoak salatzerako joateko aukera izango dute gazteek. Egun horretan ere, pertsona batzuk egongo dira jai gunetik, aholkulari bezala identifikatuta, materiala banatzen (gidak, txapak, eta pegatinak) eta informazioa eskaintzen.

17:00.- GB TXUPINAZO AURREKOAK. Iparragirre plazan gaztetxoek ondo pasatzeko ekintza sorta paregabea (12 – 15 urte bitartekoentzat).

- Ping-pong eta futbolin txapelketa.
- Festetako ginkana eta txapak.
- Tailer bereziak.

Gainera irailaren 18tik 21era arduraz dibertitu ekimena txosnetan. Alkoholaren kontsumu arduratsua egiteko mezuen zabalkuntza.

17:00 .- Areizaga - Kalebarren plazan, **HAURRENTZAKO IKUSKIZUN DIBERTIGARRIA, "Sustrai biziak" KIKI, KOKO eta MOKO pailazoekin.**

(* Eguraldi txarra egingo balu, Gernikako Arbola plazako luzapeneko karpan izango litzateke.)

**ARGAZKIA
KIKI, KOKO, MOKO**

SUSTRAI BIZIAK

Mari, Anbotoko dama, kontari dabil umeen artean oso kezkatuak dagoela, zeren ARMONIA garai batean nagusi zen lurralde hauetan, baina egun batean desagertu egin zen, eta ez da itzuli gehiago. Aurkitzen laguntzeko eskatzen die umei, ARMONIA berriro gure artean bizi dadin.

18:00.- Mundo Mejor, San Martin eta Pagoeta auzoetan **TXOKOLATE JANA.**

19:00.- Hasiera emango zaio **BURUHANDI ETA ERRALOIEN IBILALDIARI.** Mundo Mejor, San Martin eta Pagoetatik **BURUHANDIAK** aterako dira: Urretxuko **"BANDOLEROAK"** (Patakon, Giñi, Eder, Frantses Txikia, Galtxagorri eta Bizarbeltz) eta **Azkoitiko "BURUHANDIAK"**. Beraiekin batera **URRETXUKO ERRALDOIAK** ibiliko dira. Musika ikastetxeko trikitilarien eta "Iratzarri" dultzaineroen laguntzaz, Iparragirre plazaruntz abiatuko dira.

19:30 – 22:00.- "UROLATARRAK" TXARANGA ibiliko da kaleak girotzen.

19:30.- "IPARRAGIRRE BALERDI" MUSIKA TAILERRA, eta "LIZARRITURRI" TXISTULARI TALDEAren kalejira giro ezin hobean.



Urretxuko udala

20:15.-GOIERRI-VERKOL (2. Nazionala), DISDIRA BITXITEGIA ISB (1. Nazionala) (Azpeitia) taldearen aurkako saskibaloi partidua Aldiri kiroldegian.

20:30.- Iparragirre plazan, **PREGOIA** irakurri ondoren, **TXUPINAZOA**. Aurtengo **PREGOILARIA “LURRA DANTZA TALDEA”** izango da. Aldi berean, banderak jarriko dira udaletxeko balkoi nagusian. “Lizarriturri” txistulariak, “Iratzarri” dultzaineroak, “Secundino Esnaola” Musika Ikastetxeko trikitilariak, buruhandiak, erraldoiak, “Iparragirre Balerdi” Musika Tailerra eta “Urolatarrak” txaranga arduratuko dira elkartutako jende guztia dantzan jartzen, eta “URRETXU MARTXA”ren doinua entzun ahal izango da.

PREGOILARIA “LURRA DANTZA TALDEA”

Aurten guri egokitu zaigu festei ongi etorria ematea agur honen bidez. Zer esan gure historiaren inguruan, 50 urte luze hauen inguruan... Hainbat Euskal Jai eta dantza jaialdi daramagu gure bizkarretan; bai hemen eta bai atzerrian gure aberriaren izena eta euskal kultura zabalduz... Ozenki esan dezakegu harro gaudela herriarekin eta herriarentzat egindako lanaz.. Gure oinen bidez, bihotzean daramaguna eskaintzen saiatu gara edonon, beti alaitasunez eta umore onean oinarriturik.

Euskal Herriko koloreak eta Urretxuren izena munduan zehar eramaten jarraitzeko dugun asmoa zuekin konpartituz agurtzen zaituztegu.

Ondo pasa festak! Gora Lurra Dantza Taldea, gora urretxuarrak eta gora Santa Anastasiak!!!!!!

Urolatarrak TXARANGA kaleak girotzen ibiliko da, 22:00ak arte.

22:00 .- Gernikako Arbola plazan, **URRETXUKO JAIALDI SALSEROA**. Taldean ala bakarka, zure artista sena plazaratzeko aukera ezin hobea. Play backa, dantza, musika emanaldiak, bakarrizketak, sketxak... DJ Tirapurekin. Animatu parte hartzera.

22:00.- “XIII. URRETXU - ZUMARRAGAKO TXAPELKETA” IDI PROBAK. San Martin-Barrenkaleko probalekuan **IDI PROB**Aren 1. saioari emango zaio hasiera.

Partaideak: Asier Izagirre
Jose Luis Zabaleta
Asier Zubillaga

00:00.- Gernikako Arbola plazan, **III. HIP-HOP JAIALDIA**. Bertan Urretxu-Zumarragako talde hauek arituko dira: THROW RAP, AGRESIÓN VERBAL eta ARTILLERIA PESADA. Baita Alicanteko JALONER eta Madrileko TREZE talde ezaguna. Isaac, Seih, Dj Est y Dj Jhompek osatzen dute talde hau eta “Soltando lastre” bere azken lana aurkeztuko digute, zuzeneko emanaldia izugarri eta ikusgarrian). Animatu eta hurbildu gozatzerara!



Urretxuko udala

IRAILAK 19, larunbata

09:30.- Abenida berrian, **Urretxuko baserrietako ABELGORRIEN ERAKUSKETA eta LEHIAKETARI** emango zaio hasiera. **"SECUNDINO ESNAOLA" MUSIKA IKASTETXEKO TRIKITILARIAK** izango dira bertan giroa alaitzen.

Abelgorri irabazlearen pisua asmatzen duenarentzat (edota pisura gehien hurbiltzen denarentzat) bi txuleta eta gazta bat izango dira. Irabazle bat baino gehiago izanez gero zozketa egingo da.

Gainera, txosna bat montatuko da, salda bero eta bertako produktuen pintxoekin, **Bertarik bertara ekimenarekin bat eginez.**

10:00 – 13:00 eta 16:00 - 19:00, Domingo de Mendiaratz plazan, **II. GOIERRI FUTSAL FESTA "3 x 3 txapelketa"**. Ekintza honek iaz izan zuen arrakasta ikusita, areto futboleko taldearen eskutik berriro izango dugu aurtengo festetan. 8 - 13 urte bitarteko neska-mutikoentzat, 4 jokalariko taldetan antolatuta eta 15 x 12 metroko bi zelaietan banatuta egingo dira partidak egunean zehar. Adi: izen-ematea aurreko egunetan, ikastetxeetan. Animatu primeran pasatzera!

11:30 – 13:15.- GURDITXODUN ZEZEN ENTZIERRO TXIKIA, "gurpildun gurditxo zenekin". Abenidatik abiatuta, kaleetan zehar ibiliko dira, lasterketa biziak eta momentu dibertigarriak sortuz. Amaiera, Gernikako Arbola plazan.

Beraiekin batera kaleak girotzen **"SECUNDINO ESNAOLA" MUSIKA IKASTETXEKO TRIKITILARIAK** ere ibiliko dira.

12:00.- Abenidan, **BERTSOLARIEN saioa: ZUMARRAGA - URRETXUKO BERTSO ESKOLAKO BERTSOLARIAK.**

Jarraian, **GANADU LEHIAKETAREN SARI BANAKETA.**

13:00.- Herriarteko Folklore Jaialdian parte hartuko duten taldeei ongi etorria udaletxean. Taldeak:

- ZUBEROAKO JAUNAK (Espeize - Zuberoa)
- GRUPO FOLKLÓRICO CULTURAL "JACINTO SANMIENTO" (Miranda de Ebro -Burgos)
- GRUPO FOLK PRO-LOCO SAMUGHEO (Sardinia – Cerdeña)

13:15.- TIO TERONEN SEMEAK taldeak "FRESHCOOL" KALE IKUSKIZUNA eskainiko digu, Gernikako Arbola plazan. Talde hau osatzen duten 15 dantzariak eta 3 musikariak bi gauza dituzte komunean: dantzatzeko pasioa eta umore paregabea. Dantza eta musika estilo desberdinak joan eta etorriko dira, patroiz zehatz bat jarraitu gabe eta ondo pasatzeko helburu bakarrarekin. "FreshCool" umorez betetako ikuskizun dantzatua da, orain arte inoiz ikusi ez den bezala. Koadrilakoekin elkartu, gauaren konplizitatean egoera berrien bila abiatu...

16:00.- AXEL PAULIren OMENEZKO GOIERRI K.E. XAKE TXAPELKETA Areizaga-Kalebarren plazan. Izen-ematea bertan egin daiteke eta doakoa izango da. Partidak 10 minututara suitzar erara jokatuko dira, etorri eta parte hartu!



Urretxuko udala

16:00 - 19:00, Domingo de Mendiaratz plazan, **II. GOIERRI FUTSAL FESTA “3 x 3 txapelketa”**. Arratsaldeko partidak eta finalak.

17:00.- Gernikako Arbola plazako luzapenean, **XXXIX. GASTRONOMIA LEHIAKETA hasiko da.**

Jangaia: HARAGI GISATUA.

Sukaldariak Gernikako Arbola plazako luzapenean jarriko den karpan arituko dira.

18:00.- San Martin-Barrenkaleko probalekuan, **“XIII. URRETXU – ZUMARRAGAKO TXAPELKETA” IDI PROB**aren 2. saioari emango zaio hasiera.

Partaideak: Pablo Aranberri
Patxi Aranbarri
Antonio Zabaleta

19:00 .- Gernikako Arbola plazan, **HERRIARTEKO XXVII. FOLKLORE JAIALDIA.**

Taldeak:

- ZUBEROAKO JAUNAK (Espeize - Zuberoa)
- GRUPO FOLKLÓRICO CULTURAL “JACINTO SANMIENTO” (Miranda de Ebro - Burgos)
- GRUPO FOLK PRO-LOCO SAMUGHEO (Sardinia - Cerdeña)

(* Eguraldi txarra egingo balu, jaialdia Labeaga aretoan izango litzateke.)

19:00.- Domingo de Mendiaratz plazan, **ZUMBA-GAP SAIO IREKIA**, Patxi Gonzalezen eskutik. Musika biziaren errtimoak jarraituz, animatu zure gorputza mugitzera, bereziki GAP sistemak lantzen dituen gorputz atalak. Hurbildu zaitetz, ondo pasa eta kirol piska bat egitera!

21:00.- GASTRONOMIA LEHIAKETAREN SARI BANAKETA. Gernikako Arbola plazako karpan, epaimahaiak **XXXIX. Gastronomía Lehiaketarako gertatutako platerak dastatu eta gero, bi sukaldari irabazleen izenak** ezagutuko ditugu. Ondoren, sukaldari eta laguntzaileek gustu handiz triparatuko dute prestatutakoa Ederrena pilotalekuan.

23:00.- Iparragirre plazan, Urretxuko Txistulari Taldearen eskutik TXISTULARIEN ALARDEA.

(Eguraldi txarra eginez gero, Aldiri kiroldegian izango da.)

PARTAIDEAK

- Goiargi abesbatza
- Herriko hainbat musikari
- Secundino Esnaola musika eskolako haurren abesbatza
- Lurra eta Irrintzi dantza taldeak
- Zumarraga-Urretxuko bertso eskolako kideak
- Iratzarri dultzainero taldea
- Gorobel metal boskotea
- Euskal Herriko hainbat tokitatik etorritako txistulariak



Urretxuko udala

AURKEZLEAK

Amaia Aranburu eta Jesus Mari Garralda

ZUZENDARIAK

Ibon Garmendia eta Jose Javier Larrañaga

E G I T A R A U A

- Sarrera..... Gu ta Gutarrak / Mold. Xabier Barriola
- Txantxiku..... Demetrio Iriarte / Mold. Xabin Bikandi
- Han urrun etxe poxpola..... Emile Jaques Dalcroze / Mold. J.I. Ansorena
- Euskaldunak gara!..... Pepe Yanci / Mold. Xabier Zabala
- Atabala ta txistua..... Jose Luis Ansorena
- Fandangoa..... Edurne Iturbe / Mold. Xabier Barriola
- Arin arina..... Edurne Iturbe / Mold. Xabier Barriola
- Suletinoa..... Herrikoia / Mold. Jesus Castillejo
- Urbasa..... Roberto Lopez
- Elciego..... Herrikoia / Mold. Kepa de Miguel
- Mozkorri..... Oskorri / Mold. Mikel Peñagarikano
- Mexikon lo ez..... Egan / Mold. Xanet Arozena
- Behin batian Loiolan..... John Denver / Mold. Egan - Aitor Arozena
- Gernikako Arbola..... J. M. Iparragirre

00:30.- Gernikako Arbola Plazan, **DANTZALDIA**, “**VENDETTA**” taldearekin.

VENDETTA taldea 2007an sortu zen eta taldea osatzen duten bost kideek jai giro kutsua eman zioten hasieratik.

Taldeak berezkoa duen rocka eta skaren batuketari, mestizaje musikala erantsi dio.

Erritmo berriei lekutxoak egin diete, orain arte erabili gabeko funka, musika zelta eta reggaeri, baina betiko erritmo latindarrak hor iraungo dute.

Bost taldekideek bat egingo dute une oro, batera abestuko dute, batera osatuko dituzte hitzak eta koruak. Jabier, gitarra jotzailea, Luisillo, baxularia; Pello tronboian, Ruben tronpetan eta Enrikko baterian direla, eskuko bost hatzak bezala, bost dira taldean ukabila bezala, talde trinkoa osatuz eskenatoki behean zein goian.

ARGAZKIA



Urretxuko udala

IRAILAK 20, igandea

EUSKAL JAIA

Animatu parte hartzera eta jantzi baserritar!

10:00.- URRETXUKO “LIZARRITURRI” TXISTULARI TALDEA, “ZUMARRAGAKO TRIKITIXA” eta “IRATZARRI” DULTZAINARIEN DIANAREKIN emango diogu hasiera egunari.

Goiz osoan zehar, hainbat jarduera izango dira, Lekaio Kultur Elkartearen eskutik.

GOIZEKO EUSKAL JAIALDIA

Gai monografikoa: BASOKO LANAK

10:30.- Pagoetan hasi eta Gernikako Arbola plazaraino **BASOKO LANAK** gaia jorratzeko beharrezkoa den materiala eramango dute **GURDI ETA LERA BATEN BUELTAN KALEJIRA, HERRIKO MUSIKARI ETA DANTZARIEKIN: “Zumarragako trikitixa” eta Urretxu-Zumarragako eusko dantzari ikasleak.**

11:00.- Gernikako Arbola plazan, hasiera emango zaio **ARTISAUEN ERAKUSKETARI.**

ARTISAUEN ERAKUSKETAKO GAI MONOGRAFIKOA: **BASOKO LANAK**

Eguzkiak duen onena itzala omen da. Gustura hartu ohi dugu eguzki berotan itzala. Gure inguruan osteratxoa egitea nahikoa dugu, zuhaitzen gerizpearen babesaz gozatzeko. Dena dela, garai batean tentuz begiratzen zitzaion basoari. Noiz zein egur behar zen zorrotz behatzen zen: eraikuntzarako, ontzioletarako, sutarako, lanabesetarako.... Ezinbesteko lehengaia zen.

Basoko lanak izango ditugu aurten aztergai artisauen erakusketan. Basotik etxera bitartean egurrak egiten zuen bidea izango da ikusgai Euskal Jai goizean.

12:00.- DASTAKETA. Basoko lanaren ondoren hain gustukoa zen mokadutxoa dastatzeko aukera ere izango da.

11:15 – 14:30 EUSKAL JAIALDIA. Oholtza gainean eta plazan bertan, hainbat taldek

11:15 leraren ailegaera plazara trikitilariekin eta euskal dantzari ikasleekin.

11:30 Lurra dantza taldearen saioa.

12:15 erraldoien ailegaera plazara eta balsa dantzatzea, Iratzarri dultzainarien laguntzaz.

12:30 euskal dantzari ikasleen saioa.

13:00 artisau erakusketako gai monografikoaren azalpen komentatuak.

13:30 bertso eskolako bertsolarien saioa

13:50 Grupo Folk Pro-Loco Samugheo (Sardinia – Cerdeña) dantza taldearen saioa



Urretxuko udala

12:00.- Aldiri kiroldegian **ERRALDOIAK** elkartuko dira, LEKAIKO Kultur Elkartearen eskutik. Donapaleu, Legazpi eta Urretxuko konpartsak izango ditugu. Gero, 12:00etatik aurrera, kalejiran ibiliko dira kaleak alaitzen: Labeaga kalea – Iparragirre kalea – Abenida – Gernikako Arbola plaza (dantza egingo dute) – Areizaga – Nekolalde kalea.

12:30.- KARROZEROEN KONTZENTRAZIOA eta SALDA BEROA TXOSNETAN. KALEJIRA Iparragirre plazan dagoen Gazte Bidean lokaleraino. Han **TRIKI GB HAMAIKETAKOA**, pintxo goxo-goxoekin.

13.00.- Iparragirre kalean **KANTU SAIOA: “BENTAZAHARREKO MUTIKO ALAIAK”** (Urretxu, Zumarraga eta Urrestillako kidez osatutako musika taldea).

14:00.- EUSKAL JAIAREN partaide guztien arteko **HERRI BAZKARIA Ederrena** pilotalekuan.

17:30.- KARROZEN IBILALDI IKUSGARRIAREN hasiera. Irteera Mugitegi industrialdeatik izango da. Aurten, 13 koadrila aritu dira lanean. Koadrila hauek egindako karrozek eta ondoren aipatzen ditugun taldeek osatuko dute Euskal Jaiako ibilaldia.

- **Azpeitiko “Itsasi” Zanpantzar taldea**
- **Tolosako dultzaineroak eta Urretxuko “Iratzarri” dultzaineroak**
- **Donapaleu, Legazpi eta Urretxuko erraldoiak.**
- **Urretxuko “Lizarriturri” Txistulari taldea**

KARROZAK ETA MUSIKA ETA DANTZA TALDEAK

1	19 ETA KITTO! Lurra Dantza taldea
2	GUZTIOK BAT Grupo Folk Pro-Loce Samugheo (Sardinia –Cerdeña)
3	ATZEBE Urretxuko trikitilariak
4	IPARRALDEKO HARROXKOAK Urretxu eta Zumarragako Eusko Dantzari Ikasleak eta Zumarragako trikitixa
5	ZEINEIKEN Larraiza dantza taldea (Lizarra)
6	ZANGALATRABA Triketilariak
7	MDY Secundino Esnaola Musika Eskolako trikitilariak
8	TOZ Irrintzi dantza taldea
9	HAPU Legazpiko Musika Eskolako trikitilariak
10	PATA Ametz Bide dantza taldea (Ordizi)
11	KAGAU DIAU! Oñatiko Musika Eskolako trikitilariak
12	EYAK JODIU XXXXX dantza taldea (XXXX)
13	EM - TF Secundino Esnaola Musika Eskolako Metal Taldea



Urretxuko udala

18:30.- Gernikako Arbola plazan **“ZUHAITZAREN SOINUA KOLEKTIBOAREN”** saioa.

19:15.- Ibilaldiko lehenengo karrozak Gernikako Arbola plazan sartzen hasiko dira.

Denak Gernikako Arbola plazara heldu ondoren, EPAIMAHAIAREN ERABAKIA jakinaraziko da.

22:30.- Gernikako Arbola plazan, **DANTZALDIA “JOSELU ANAIK”** taldearekin.

23:30.- EUSKARAREN ALDEKO KANDELA PIZTEA, kantu eta musikarekin batera, Gernikako Arbola Plazan.

Euskararen sugarraz,
Guztion indarrak...
Piztu zeuk ere zeure txingarra!

00:00etan.- “BEDAIOKO INGURUTXOA”, dantza herrikoa, Gernikako Arbola plazan.

00:30, Gernikako Arbola plazan bertan, **“JOSELU ANAIK”** taldearekin festak aurrera egingo du, 02:30ak arte.

**JOSELU
ANAIK
ARGAZKIA**

JOSELU ANAIK

Joselu Anaiak taldea Joselu Ruiz de Gordo eta bere lau anaiak osatu zuten: Javier, Andoni, Felix eta Jesusek. Taldeak ibilbide luzea du egin eta 37 urte luzez ibili da Euskalerra osoan zehar, herriko plazak musika eta dantza alaiak girotzeko. Betiko “Anselma” eta “Marina” abestiek gaiz, gau egungo Esne Beltza eta Gatiburen abestiek ere etorriko zaizkigu Urretxura.

IRAILAK 21, astelehena

KOADRILEN EGUNA

11:00 - 14:00.- Domingo de Mendiaratz plazan, **HAUR ETA GAZTETXOEN GUNEAN, HAURRENTZAKO PARKEA:** txu-txu trenak, zirkuitoa eta puzgarriak.

(* Eguraldi txarra egingo balu, ekintzak Aldiri kiroldegian izango lirateke.)



Urretxuko udala

12:00.- Domingo de Mendiaratz plazatik bertatik abiatuta, **MOTO ETA PATINETE LASTERKETA EROA!** Haur txikitxoei zuzenduta, plastikozko motor eta patinete lasterketa. Ezinbestekoa da kaskoa jarrita eramatea. Izen-ematea, 11:30ean, plazan bertan.

Honela banatuko dira mailak eta sariak:

MOTORRAK	1. maila	2011 – 2012 urteetan jaiok
MOTORRAK	2. maila	2009 – 2010 urteetan jaiok
PATINETEAK	3. maila	2007 – 2008 urteetan jaiok
PATINETEAK	4. maila	2005 – 2006 urteetan jaiok

12:00.- Gernikako Arbola plazan, **ZEZENTXOAK.** Gazte eta ez hain gazteen ausardia probatzeko aukera bikaina. Gainera antolatuko diren **ZEZEN-JOLASETAN** parte hartzeko aukera izango duzue. Izen-ematea, plazan bertan.

Plazan “**IRAUNKORRAK**” txarangakoak arituko dira ikuskizuna girotzen.

12:30.- KOADRILEN PISAKETA ETA IZEN-EMATEA. Arratsaldeko koadrilen arteko jokuetan parte hartuko duten koadrilen pisaketa, Ederrena pilotalekuan. Jolasentzako izen-ematea ere bertan egin daiteke.

12:30.- “IRAUNKORRAK” TXARANGA kaleetan zehar ibiliko da koadrilak dantzan jartzen.

12:30.- Areizaga – Kalebarren plazan, **IPUINAK KALEAN. Haurrentzako ipuin saioa, OIHULARI KLOWN ANTZERKI TALDEAREKIN. Ipuin kontalaria Virginia Imaz izango da.** Bera aspalditik ari da profesionalki kontu kontari, entzun dituen istorioak, irakurri dituenak edo berak asmatutakoak kontatzen. Gaurko hauek ezberdintasunak eta aniztasuna lantzeko eta arazoak konpontzeko ipuinak dira; makil majikoa hartuta, irtenbidea bilatuko diogu eguneroko bizitzari!

12:30 – 13:00.- 3 eta 6 urte bitarteko haurrentzat: “Nire etxea”

Ate bat du nire etxeak, sar zaitez barrura eta gozatu ipuin sorta zoragarri honekin!

13:00 – 13:30.- 7 urtetik gorako haurrentzat: “Bigarren printzesa”

Printzesa eta monstruen ordua iritsi da... erne, edozer gauza gerta daiteke!

14:30 – 17:00.- HERRI BAZKARIA Abenidan.

(* Eguraldi txarra egingo balu bazkaria Ederrena pilotalekuan eta Gernikako Arbola plazako luzapenean egingo litzateke.)

17:00 - 20:00.- Domingo de Mendiaratz plazan, **HAUR ETA GAZTETXOEN GUNEAN, HAURRENTZAKO PARKEA:** txu-txu tren, zirkuitua eta puzgarriak.

(* Eguraldi txarra egingo balu, ekintzak Aldiri kiroldegian izango lirateke).



Urretxuko udala

17:30 – 19:30.- KOADRILEN ARTEKO JOKUAK

17:30, Gernikako Arbola Plazan **KOADRILEN ARTEKO SOKATIRA**.
Pisaketa eta izen-ematea 12:30ean izango da Ederrena pilotalekuan.

“IRAUNKORRAK” TXARANGA ikuskizuna eta kaleak girotzen ibiliko da.

Arratsaldean, “EHUNZANGO BATUKADA TALDEA” kaleak girotzen ibiliko da.

20:00.- URRETXUKO “IPARRAGIRRE BALERDI” MUSIKA TAILERREKO BANDAREN eskutik, DANTZALDIA Gernikako Arbola plazan. Bertan betiko doinuez goza ahal izango dugu giro alaiean.

21:30.- KANTU-AFARIA Gernikako Arbola plazan.

Adin guztietako jendea elkartuta, ogitarteko goxoak janaz, lehengo eta oraingo euskal abestiak abesteko aukera aparta: Benito Lertxundi, Xabier Lete, Mikel Laboa, Mikel Markez, Ken Zazpi, Hertzainak, etab. Betiko parranda-kantu ezagunak ere abestuko ditugu, eta hori guztia herriko zenbait musikariren laguntzaz, giro jatorrean.

Aurtengo artista gonbidatua: Niko Etxart

Eta honekin bukatuko dira aurtengo Urretxuko Jaiak. Ondo pasa!

IRAILAK 26, larunbata

15:30 – 18:00 PLATER TIRALDIA
Aspaceren aldeko plater tiraldia Urtatzako zelaian (Legazpi)

IRAILAK 27, igandea

ELKARTE ARTEKO ZIKLOTURISTA PROBA “GOIERRIKO KLASIKA”

Irteera ordua: 9:00
Irteera eta helmuga: Jose Mari Lasa plaza

**ARGAZKI ZAHARRA
SARTU GOIERRI K.E.**

Informazioa www.goierrike.net



Urretxuko udala
OHARRAK

JAIETAKO AUTOBUS ZERBITZU BEREZIAK

Aurten gaueko autobus zerbitzuak indartuko dira

Ohikoa den Legazpiko autobusaz gain, irailaren 19ko gauean Antzuola-Bergara-Beasain-Ordizi lotuko dituen gaueko autobusa ere izango da, Urretxuko festetetan ondo pasa nahi duten bisitariak lasai etorri eta joan daitezzen. Hauek dira zerbitzuen ordutegi eta ibilbideak:

• Irailak 19 (Bergara-Antzuola-Beasain-Ordizia)

Bergara	Antzuola	Zumarraga	Beasain	Ordizia
23:30	23:40	23:55		
0:30	0:40	0:55		
1:30	1:40	1:55		
2:30	2:40	2:55	3:10	3:25
5:00	5:15	5:25	5:40	5:55

Ordizia	Beasain	Zumarraga	Antzuola	Bergara
		0:00	0:15	0:25
		1:00	1:15	1:25
		2:00	2:15	2:25
3:30	3:45	4:00	4:15	4:25
6:00	6:15	6:30	6:45	6:55

Txartelaren salneurria: 2,00 €

• Irailak 18 eta 19 (Legazpi)

Zumarragatik irteerak	Legazpitik irteerak
23.30	23.30
00.00	00.00
00.30	00.30
01.00	01.00
01.30	01.30
02.00	02.00
02.30	02.30
03.00	03.00
03.30	03.30
04.00	04.00
04.30	04.30
05.00	05.00
05.30	05.30
06.00	06.00

Geralekuak: Zumarraga: Estación * Legazpi: papelera Biribilgunean
Txartelaren salneurria: 2,10 €

JAIETAKO ZAPIA

Honako lekuotan izango dituzue zuen esku jaietako zapiak:

- Aizpurunea kultur etxea
- Urretxuko tabernak

BARRAKAK

Lizeoko jolastokian jarriko dira (irailaren 18tik 21era)